



BASAURIKO UDALAREN, HERRIKO TALDEAK-EN ETA MIKELATSEN ADIERAZPENA

Herriko Taldeakek, Mikelatsek eta Basauriko Udalak:

Pandemiaren ondorioz bizi dugun osasun-egoera ikusita, Herriko Taldeak osatzen dugun 16 kuadrillek, Mikelatsek eta Basauriko Udalak **erabaki dugu** San Migeleko eta San Faustoko **jaiak ez ospatzea**. Tristeia egiten zaigu beste urte batez jairik ez antolatzea, baina **horixe da aukera bakarra: erantzukizunez eta zuhurtasunez jokatzeta**.

Dena dela, Basauriko bizitza kulturala eta aisialdia apurka-apurka berpizten joateko, Herriko Taldeakek eta Mikelatsek, Basauriko Udalaren laguntzarekin, **zenbait ekitaldi kultural** antolatuko ditugu, **formatu txikian, edukiera kontrolatuarekin** eta indarreko **osasun-neurri eta-murrizketa guztiak beteta**. Bai antolatzaileok, bai herritarrek, jarduera horietan (eta beste edozein unetan) zehar **jende-pilaketak saihesteko erantzukizuna hartu** behar dugu.

Badakigu basauriarrok, berriro ere, **gure sen ona eta zuhurtzia** erakutsiko dugula, herrian **kutsatze-fokuak** eta **gizalegezkoak ez diren egoerak ekiditeko**.

Batek daki zelan egongo garen datorren urtean... Guztiok espero dugu **2022an** gure kaleak **jai-giroan murgildu ahalko direla**, berriro ere!

Bitartean, 2021 honetan, izan gaitezen **zentzudunak eta zuhurrak**. Egin dezagun gure esku dagoena, datorren urtean, berriro ere, **jaietako jantziak jantzi ahal izateko**, San Faustoren eta San Migelen laguntza txiki batekin.